

DOKUMENTU POLITIKOA



batzarre



- Batzarrek ezker berritua aldarrikatu nahi du, gizarte anitz eta irekiaren bultzatzailea, demokrazia parte-hartzaile eta sozialaren aldekoa, arazo berriei irekia eta dogma zaharretatik urrundua. Kritiko agertzen da, joan den mendean, ezkerreko askorentzat erreferentzia izandako bizipen historikoen, estatu eta alderdi komunistak, esaterako, egun ere, ezkerreko hainbat sektoretan aldeztaille direnak. Ezkerreko elementurik positiboak hartzen dituen ezkerren aldekoak gara, eta aldiz, ezker klasikoak dituen negatiboak aurka gaude (dogmatismoa, dramatismoa, joera, kritika eskasa iraganarekin, biko pentsamendua, etab.) hauek guztiek ez baitute humanismo kritikoa eraikitzen laguntzen; ez eta gertatzen ari denaren benetako ikuspegia izaten ere.

- Batzarre ez da islatua sentitzen tradizionalki egin diren ezkerren definizio klasiko eta konbentzionaletan. Horregatik, "Ezker soziala" deituriko hori sendotu nahi dugu, laguntza gehien behar duen jendearekin loturiko ezker hori, gizarte auzi berriak bultzatzeko gai dena, eta aldi berean, beti izan dugun elkartasun tradizio horretako kide dena. Azkenaldian, gure zeregin soziala berritzeko gai izan gara Batzarren. Gure taldeko kide diren dozenaka lagun etxe kaleratzeen, pobrezia eta bazterketa sozialaren aurkako borrokarekin lotutako taldeetan laguntzen ari dira. Diskurtso liberalaren (UPNk bultzatua) hegemoniari bete-betean aurre egiteko prestatu beharra daukagu. Diskurtso horrek erruduntasuna eta susmoa leporatzen dizkio etorkinari, Oinarrizko Errentaren hartzaileari edota Elikagaien Bankuaren erabiltzaileari, baina bankuen, etxe kaleratzaileen eta elkartasunik gabeko eliteen aurrean ordea, belaukatu egiten da. Eta eremu horretan, ezker sozialak ekarpen handiak egin ditu lurralde honetan. Ez da gutxi hainbeste behar sozial detektatu eta erantzun izana. Ez da gutxi, hainbatetan, laguntza gehien behar dutenendako babes eremuak sortu izana. Etxe kaleratzeetan, gorpuk lurpetik ateratzeetan, borroka sindikaletan edo jantoki sozialetan hor egon izana ez da une batetik bestera egiten den zerbait. Ez da erraza protesta eta ekintza soziala, eta boluntariora onuragarria uztartzea. Tira diezaiogun, bada, soka horri. Gobernua lortzen saiatzea, eta aldi berean, gizarte protesten bozgorailu izatea uztargarria da. Eta jaio ginenetik entrenatzen ari garen praktika, bestalde. Batzarreko kide asko aritu dira eta ari dira udalen kudeaketan, eta gai izan gara zeregin instituzional horiek gure eskaera sozialekin bateragarri egiteko. Beraz, tentsio bikoitz horri eutsi behar diogu.

- Euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko ari gara lanean, askatasun, nahitasun eta errealitate soziolinguistikoaren arretaren oinarrietatik abiatuta; izan ere, gaztelaniarekin batera, bertako geure hizkuntzetako bat baita. Saiatuko gara euskara, gure bi hizkuntza ofizialeko bat, elkargunea izan dadin gure kulturako atal baliotsua delakoan, izan ere, hala baita. Nafarroan askotariko sentimendu nazionalak daude. Orain arte, bi aldeetatik identitateen arteko liskarra bultzatu dute eta mespretxatu egin dira, maiz, beste aldean ordezten duten ikurrak. "Konfrontazio" inertzia hori hautsi egin nahi dugu. Nafarroako lurraldearen errealitate komuna aitortzetik abiatzen gara gu, komunitatea definitzen duten sinbologia eta izaera aitortzetik, hori baita nafarrok partekatzen dugun substratua. Aldi berean, Nafarroan identitate nazional ezberdinak bizi dira, geure sentitzen ditugunak: nafarra, nafar-euskalduna, espainiarra. Horiek elkarren onarpena eta errespetua sendotzea da gure xedeetako bat. Identitateen elkarbizitzari edo bertako hizkuntzen erabilerari dagozkien auzietan, kontsentsu politiko eta sozial zabalak lortzera jo behar dugu. Gizartearen ikuspegi anitzagoa eta ez hain baztertzatzailea indartzen duten akordioak lortzera.

- Batzarre Nafarroako indar politikoa eta soziala da eta bere jardueraren eremua ere Nafarroa du, baina horrek ez du esan nahi Espainiako politikan inplikaziorik ez dugunik. Batzarren ustez, Na-

farroaren autogobernua defendatzen duen indarra den heinean, ezinbestekoa da Nafarroako Foru Hobekuntzako Lege Organikoaren aldaketa sakona, bai Nafarroak bere eskuduntzak handitu eta sendotzeko, bai gizarte eskubideetan sakontzeko, hauxe baita Nafarroako Foru Hobekuntzako Legearen benetako hutsune nabaria. Akordio berri bat behar dugu, elkarren onarpenean oinarritua eta 1978ko Konstituzioaren mugak gaindituko dituen alde bikotasun harremani marko berri bat emateko; eskuduntza eremuak argitu eta Auzitegi Konstituzionalaren aurreko helegiteak saihesteko negoziazio mekanismoak ezarriko dituen.

- Hitzarmen Ekonomikoak biltzen ditu Nafarroaren eta estatuaren arteko harreman ekonomikoak, NFHLOko 45. artikuluan adierazten den moduan. Hala ere, ez arau hau eta ez beste ez dira aldaezinak; horregatik, gu Gure Komunitateak bereganatu behar dituen eskumenen arabera hura egokitzearen aldekoak gara, beti ere, bere hitzarmen izaera galdu gabe. Eskumen hauetako batzuk eskatzen 25 urte baino gehiago daramagu, trafikokoa esaterako.

- ETaren historia tragikoa ixteko, zintzotasunez begiratu beharra dago deshumanizazio, gogorkeria eta sufrimenduz beteriko historia horri. Ezkerreko indarretako batzuek, gureak beste batzuen artean, sentsibilitate falta barkaezinez jokatu genuen. Ez genuen jakin izan edo ez genuen ulertu nahi izan ETaren biktimen sufrimendua. Bere garaian zuzendu genuen jokabide hori. ETaren ondoko garaiari heldu behar diogu, onartu behar dugu ETA ez bakarrik huts egitea izan zela, batez ere, izugarrikeria izan zela baizik. Poliziaren gehiegikeriaren ondorioz sufrimendua eta biktimak izatea onartezina da, baina horrek ez dakar, inoiz ere, kontakizun berdintzailea egin beharrik, errotik egiten diogu uko eremu abertzaleko zenbait sektoretan dabilen honako ideari “denok gara gertatutakoaren errudun”. ETari egiten diogun kritika funtsezko auzien ingurukoa da, ezker berritzaile eta etorkizunari begirakoarentzat. Eta, hori dela eta, funtsezkoa izanen da atal hau euskal ezkerrekin ongi ixtea. ETaren indarkeriak biktimen oinarritzko eskubideak urratu zituen, eta bere gain hartu zuen justizia banatzeko ahalmena, erabat modu ez zilegi eta mugagabea, heriotza zigorreraino ere iritsiz. Haren atentatuak aniztasunaren aurkako izaera zuten, eskusibismorik okerrenaren bere-bereak, komunitate euskal-espainiarraren edo nafar-espainiarraren ordezkartzaren aurka jotzen zuenean, mehatxu eta atentatu bidez. Ez dezakegu gaia besterik gabe hor utzi, 840 hildako eta milaka lagun bizkartzainekin ibiltzera zigortuak izan ez balira bezala, ETak hamarkadatan zehar ezarri zigun “alderdien lege” makabro hartan. Bestalde, estatuak laguntza eman behar du estatuaren terrorismoaren biktimak izandakoei aitortza eta ordaina eskainiz, presoak Euskadiko eta Nafarroako kartzeletara hurbildu behar ditu, eta barkamen publikoa eskatzea zor digu torturen eta indarkeriaren biktima izan direnenganako izan duen inpunitate eta ahanzturagatik.

- Laikotasunaren alde, Estatua benetan akonfesionala izatearen alde. Eliza/Estatua banaketan sinesten dugu eremu guztietan eta amaitu nahi ditugu ordezkapen instituzionalak ekintza erlijiosotan, diren konfesiokoak direla ere, hala nola eta Eliza Katolikoari hainbat arlotan dituen pribilegio guztiak kendu, besteak beste, OHZ-ren salbuespena edota herritar guztiena den Kultur Ondarearen inmatrikulazioak .

- Memoria Historikoa. Urteetako ahanztura eta umilazioaren ondotik, egun, memoria demokratikoaren eklosio une indartsua bizi dugu gure lurraldean. Nafarroan berealdiko Legea dugu, Batzarrek eta Izquierda-Ezkerrak bultzatua eta aldarrikapen nagusiak bermatzen ditu. Oroimenaren parkea ere badugu, errepublikaren aldeko baloreak defenditzeagatik hil zituzten haiei guztiei he-

rritarren eta instituzioen omenaldiaren adierazgarri. Eta nabarmentzekoa da bertako elkartze-ehun oparoa. Ez dago dena egina, gure memoria errepublikano eta demokratikoa indartu eta finkatu behar dugu.

- Monarkiaren aurka gaude eta Errepublika da gure hautua estatu eredu gisa. Hirugarren errepublika nahi dugu, nazio anitzekoa eta solidarioa, estatuaren antolakuntzarik demokratikoena baita. Eta, aldi berean, herritarren baloreen eremu izanen dena, GGEekin bat egin, demokrazian sakondu eta gehiengo sozialen bizi kalitate duina ahalbidetuko duena. Hitz batean, baloreen errepublika baten alde gaude, ilusioak piztu eta ezkerreko jendearentzat eremu komun bat eraikitzeko gai izanen dena.

- Orain arte irtenbide okerrak eman zaizkio pluraltasunari, frentismoa gainditu zaio ulerkortasunari, bestearen ukapena errespetuari, eta inposizioa itunari. Espainiako Konstituzioan normaltasunez eta zurruntasunik gabe hartzea nahi dugu irteera prozesuaren bideragarritasuna, eta aitortu horrela, erabakitze eskubidea, Kanadako Auzitegi Gorenak Quebec-eko auzian ezarritako oinarrien espirituen baitan hitzartutakoa bezalakoa. Hark zenbait jokabide ezartzen zituen: gehiengo nabariak, elkarbizitzako proiektua, estatuarekin hitzarmena eta galdera argia. Hil ala bizikoa da hitzarmena bultzatzea aldebakartasunaren aurrean. Independentzia eta zentralismoaren artean, irtenbide egokia izan daiteke federalismoa edo konfederalismoa, gehiengoaren ustez, euren buruak estaturik gabeko naziotzat dituztenen onarpenerako eta zilegitasun sozial handiagoa eta babes sendoagoa jasoko lukeen tarteko bide gisa. Argi izan behar dugu gure gizarteetan ez dagoela homogeneotasunik nazio sentimenduei dagokienez, eta batzuetan, bai independentismoak bai zentralismorik jakobinoenak badagoelako ideia helarazten digute. Eta hau akatsik handienetakoa da. Herriaren izenean hitz egiten dute, autodeterminatu nahia adierazten duen komunitatearenean, horrelako nahirik ez dagoenean era bateratuan, eta alde batera uzten dute aspalditiko sentimendu eta bizipen nazionalen aniztasunaren egiaztapena. Gizarte konplexu eta heterogeneo horretan, aldeetako baten erabakitze eskubide mugagabe, erabateko, kondiziorik gabe eta alde batekoa planteatzea hanka-sartzea da. Gainera, nazioarteko zuzenbidean ez du nondik heldu; gure kasuan ez gaude nazioarteko komunitateak eskubide hori onartzen duen lau egoeretako batean: kolonia, inbasio/okupazioa, diktadura eta giza eskubideen ageriko urraketa. Izatekotan ere, Estatu espainiarreko nazio batek argi eta nagusitasun handiz independentzia nahi badu, nazio horretako herritarrei kontsulta egiteko prozedura demokratiko eta hitzartua ezarri beharko da.

- Genero berdintasunaren alde bizitzako arlo guztietan eta matxismoaren adierazpen mota guztien aurka. Gure ustez feminismoa da matxismoaren aurkako antidotoa. Berdintasuna bizitzako arlo guztietan lortzeko ari gara borrokan: familian, erakundeetan, hezkuntzan, lanean..., hori baita bidezko gizarte batean bizitzeko modu bakarra. Genero indarkeria icebergaren muturra da baina horren azpian ditugu jarrera pila bat, inposaturiko/onartuariko rolak, ohiturak... emakumeen eskubideen murrizketa dakartenak, eta ondorioz erauzi behar ditugunak. Era berean, indarkeria edo bidegabekeria sexistaren edonolako adierazpen motaren aurka gaude eta pertsonen arteko harremanetan heziketa egokia, tratua ona eta kultura ez sexista defendatzen ditugu.

- Krisi ekonomikoek ingurumen arloari eragiten diote. Inguruan duguna zaintzea da haiek konpondu eta gainditzeko modu bakarra. Horrela egin izan dugu beti eta horretan saiatzen jarraitu behar dugu. Airearen kalitatearen alde egin behar dugu borroka, Nafarroako ekosistemen alde, eta era berean,

geure osasunaren alde ere bai. Horregatik guztiagatik, beste garapen mota baten aldekoak gara, garapen hurbilagoa, tokikoagoa, lurra eta pertsonak errespetatzen dituen eta elikagai subiranotasuna eta km 0a sustatzen dituen. Garapen jasagarri baten alde ari gara, indarra herritarrengan jarriko duenaren alde. Gizarte errealitate ezberdinen pentasaturiko arkitekturak nahi ditugu eta norberaren autonomia eragozten duten trabarik gabekoak. Eraikitzekeo garaian ekologia eta zentzuzkotasuna dira gure lehentasunak.

- Bere garaian, lehen lerroan ibili ginen intsumisioaren aldeko mugimenduan, derrigorrezko soldadutzaren aurka. Bakezaleak eta antimilitaristak gara. Edonondik datozen gerren eta terrorismoen aurkakoak. NATOri ez esaten diogu eta Bardeetako Tiro Poligonoa eraistea eskatzen dugu, eta gune natural hori jendearen erabilpen eta gozamenerako eskatzen dugu eta ez gerrarako entrenamenduak egiteko.

- Diktadura militar mota guztien eta interbentzionismoaren aurkakoak gara. Giza Eskubideen errespetu unibertsalaren eta demokraziaren aldekoak gara eta gaitzetsi egiten dugu oinarri demokratikoen eta giza eskubideen urraketa oro, izan euren burua ezkerrekotzat duten gobernu demokratikoez egindakoak, eskuinekoek edo bestelako edozein ideologiatakoek, edo edonolako erregimen diktatorialek, izan teokratikoak, komunistak, sozialistak, faxistak...

- Uste dugu migratzea eskubidea dela eta, hainbatetan beharra. Europak eta Espainiako Gobernuak ezarritako egungo atzerritartasun legeen aurka gaude Beraz, honakoa eskatzen dugu, errespetuaren eta kultur arteko elkarriketaren bidezko "berdintasuna bizitzeko eta aniztasuna elkarrekin bizitzeko". Gure ustetan, gure gizarteak eskubide politiko, sozial, kultural eta erlijiosoen berdintasunaren alde lan egin behar du eta atzerriko populazioaren integrazioa lagundu, arrazakeria eta xenofobiaren aurka borroka eginez. Espainiako estatuaren eta Europaren elkartasunik gabeko eta nazioarteko legeriaren aurkako jarreraren aurrean, honakoa eskatzen dugu: errefuxiatuen harrerari dagokionez nazioarteko hitzarmenak praktikan jar daitezela, asilo eta babes gaietan nazioartean onartutako hitzarmenak bete daitezela. Errefuxiatuekiko elkartasun eza Europako herrialde gehienetan, giza eskubideen eta bakearen Europaren balorerik positiboena ahultzen ari da.

- Nafarroan 30.000 langabetutik gora dago oraindik eta beste askok azpi-enpleguak dituzte, nahiko ez lituzketen lanaldi murriztuak edota soldata eskasak. Aitortzen dugu egungo Nafarroako Gobernu egoera horri aurre egiteko ahaleginetan ari dela, baina ez da nahikoa, ahalegin handiagoa behar da eta eragile sozial eta ekonomiko guztien elkarlana, hala nola enplegu programak indartzea, bereziki gazteei, urritasunen bat dutenei eta iraupen luzeko langabetuei zuzendutakoak. Urteetan aldeak areagotzen eta lan eskubideak galtzen aritu ondoren, funtsezkoa da PP eta PSOEn lan erreformak indargabetzea eta desberdintasunak zuzentzea, aberastasunaren banaketaren bidez.

- Nafarroa bertan bizi garen herritar guztion beharrak asetzeko baliabide aski duen Komunitatea da. Errentaren birbanaketa politikak daude hobetu beharrak, bilketa garaian gehien duenak gehien eman dezan eta banaketa garaian gehien jaso dezan gehien behar duenak. Horretarako ezinbestekoa da elkarrekin zergaren bilketan lehengo kopurua berreskuratzea, iruzur fiskalaren aurkako borroka etengabe eta eraginkorra eta zerga "berde" berriak (kutsatzen duenak ordain dezala) ezartzea, gure inguruko herrialdeen zerga bilketa maila lortu arte. Bestalde, gastuetan efikazia eta eraginkortasun irizpideak jarri behar dira eta praktika ustel guztiak alde batera utzi.

- Batzarren. Osasungintzaren, hezkuntzaren eta antzeko oinarrizko zerbitzuen kudeaketa publikoa defenditzeaz gain, publikoaren presentzia handiagotzearen alde gaude, esaterako, garraio eta komunikaziorako azpiegitura handietan, bankuen zerbitzuetan edota energia eta hornidura sare handietan; bestela ez baitezakegu bermatu herritar guztien irispidea oinarrizko baliabide horietara. Batzarrekook publikoari izen ona itzuli nahi diogu, aukera berdintasuna bermatzeko gunea baita. Horretarako, beharrezkoa da, bestalde, zenbaitetan gertatzen diren efikazia falta eta eraginkortasun eza eragiten duten elementuak zuzenduko dituen funtzio publikoaren erreforma.

- Gaitzetsi nahi dugu egungo “garapen eta hazkunde eredu” , planetako lehengaiak agortzera eta alferrik galtzera baikaramatza. Eredu honetan dago, aberastasunaren banaketan gero eta handiagoak diren desberdintasunen jatorria, ez herritarren artekoak bakarrik, baita estatuen artekoak ere. Botereen kontzentrazioa ari da gertatzen, finantzarioena eta sozial eta ideologikoena ere bai, gero eta urrunago dagoena populazioaren kontrolatik eta demokratikoki hautatuko erakundeetatik. Ongizate estatuaren galtzea edota ustelkeria , bere era guztietan, berezkoak ditu sistema honek. Ondorio kaltegarri zerrenda luzea gehitu genezake, baina esandakoak balio dezala egungo eredu honen gainean gure iritzia agertzeko. Beste mundu bat, bidezkoagoa, posible da!

- Laburpen eta ondorio gisa, Batzarren existentziaren gakoa ezberdintasun guztien aurka eta justiziaren, askatasunaren eta elkartasunaren alde borroka egitea dela nabarmendu nahi dugu. Edozein zapalkuntza motaren aurkakoak gara eta giza eskubide guztien -pertsonal zein kolektibo- alde jarduten dugu, beti gizarteko ahulenen ondoan.

ORAINGO ZIKLO POLITIKOA ETA GURE IBILBIDEA

- 2011ko maiatzean, m-15eko mobilizazio historikoaren eskutik, ziklo politiko sozial berri bat abiatu zen, eta egun oraindik ere baditu zenbait doiketa egin beharrak. Mobilizazio handiak eta mareak indartu ziren osasungintzako, hezkuntzako eta hainbat tokiko-auziren inguruan. Lehen unetik horixe gaude, gure herrietako Plazetan eta horietatik eratorritako jardueretan.

- Batzarre eta EBren arteko koalizioa, Izquierda-Ezkerraren jatorria, 2011ko ekaineko hauteskundeetan abiatu zen eta emaitza pozgarriak izan zituen, bai hauteskunde arloan bai harremanen eta elkar ulertzearenean -salbuespen urriak salbuespen-, bi taldeen artean lau urtean zehar joan baitzen eratzen eremu politiko eta sozialean bat egiteko.

- 2015eko maiatzean Podemosen sorrerak eta horiek Europako Hauteskundeetan lorturiko emaitzek, ibilbide berri baten hasiera ekarri zuten eremu hauteskunde-politikoan eta PSOEn ezkerreko indarren arteko harremana birplanteatu beharra etorri zen.

- 2015eko ekaineko udal hauteskunde eta hauteskunde autonomikoek mapa politikoa puskatu zuten. Herri handi eta txiki askotan hauteskunde-taldeak osatu ziren eta botere handia lortu zuten, askotan udalaren gobernua bera lortzeraino. Estatuko hainbat erkidegotan PSOEk, Podemosek eta EBk bat egiteak PP gobernutik atera zuen.

- Foru hauteskundeetan Podemos indarrean sartzeak gure Komunitateko hauteskunde-mapa dezentente aldatu zuen. Aurreko legealdiko esperientzia, oro har ona, oinarritzat hartuta, erabaki zen

Izquierda-Ezkerra koalizioa aurreko termino beretan errepikatzea eta emaitzek behera egin bazuten ere, eutsi egin zitzairen hauteskunde eszenatoki berriaren erasoei eta bi parlamentari lortu ziren. Prezioa Batzarrek parlamentuan zuen presentzia galdu egin zuela, horrek dakarren presentzia publiko urriagoa eta gure ideien proiektio eskasagoa; beraz, honek kontuan hartzeko faktorea izan beharko du datozen hauteskundeetan Izquierda-Ezkerra koalizioa berri nahi izanez gero.

- Udaletan Podemosekin onarturiko akordioak txikiak eta zailak izan dira. Izquierda-Ezkerrak eutsi egin dio goranzko joerari, ordezkari handiagoa lortu dugu, zenbait alkatez eskuratu eta herri handi eta garrantzitsuetako gobernu taldeko partaide gara. Batzarrek eutsi egin dio bere ordezkari eta zenbait udaletan alkate izan beharri aurre egin behar izan dio.

- Hauteskunde orokorrak esanahi txikiagoko erronka izan dira beti Batzarrentzat, nahiz eta zenbait legealditan, koalizioaren batean parte hartzeak haietan ere agerrarazi. 2015eko abenduko hauteskunde orokorren hitzordua, EBrekin konpondu genuen eta emaitza xumeak lortu genituen Nafarroa mailan, baina balio izan zigun elkarren arteko errodajea sendotzeko eta Izquierda-Ezkerraren irudia indartu eta zabaltzeko.

- 2016ko orokorretan Elkarrekin Ahal Dugu koalizioan sartu ginen, militantei kontsulta egin ondoren eta gehiago handiz bertako partaide izatea erabaki ondoren. Esperientziak bere argi-ilunak izan zituen. Hauteskunde emaitza esanguratsuak izan genituen, baina espero genuen elkarren ondoan lanean aritzeak elkar ezagutzea eta ulertzea ekarriko zuela koalizioa osatzen genuen artean, baina ez da hala izan. Hurbiletik ikusi ahal izan genituen zenbait nagusikeria kasu Podemosen aldeetik eta nolako gutxiespen tratua eman ziguten, eta horrek handitu egin zuen bi taldeen arteko aldea. Esperientzia honek zalantzazko eszenatoki batean jartzen gaitu, Nafarroan ezkerrek batzerakoan ibili beharko dugun bideei dagokienez.

EGOERA POLITIKOA

- Egungo egoera politikoa, ezkerreko gobernu bat abian jartzeko PSOE – Unidos Podemosen arteko akordio ezak markaturik dago. Horri gehitu behar zaio bi alderdiek barnean bizi duten egoera korapilatsua eta horrek egungo eszenatokia aldatzen saiatzeko, maniobrarako margena estutu egin du. Izan ere, alde aurretik euren barneko krisiei egin behar diete aurre, panorama hauteskunde-politikoan daukaten egoera hobetzeko eta batzuek eta besteek ezkerrearen eremuan hegemonia lortzeko hasi duten borroka etengabea garaile izateko.

- Ezkerreko gizarte eta hauteskunde alorra zabala bada ere, oposizioko alderdi nagusien ahuldadeak eta euren elkarrengandik urruntzeak, eragiten du PPko gobernuak, dituen mugak muga, irauteko itxura duela 2019ko Europako, foru eta udal hauteskundeak arte, behintzat, baldin eta Pedro Sanchez PSOEko idazkari nagusi hautatu izanak oraindik ikuskizun den norabide aldaketaren bat ez badakar, behintzat.

- PPK esku batzuk irabazten utzi dio PSOERI, inbestidura saioan eskainitako laguntzaren truke (SGS-ren igoera, esaterako) eta, aldi berean, aurreko legealdian lortutako nagusikeria eta intrantsigentzia irudia hobetzen saiatzen ari da. Orain elkarriketa du hizpide eta akordioetara iritsi beharra, baina horrekin batera, jakinarazi digute murrizketa politikak ez duela aldaketarik izango nagusienean eta Montorok iragarri du 2017a “urte zaila” izanen dela.

- Jakiteke dago, oposizioak Parlamentuan lor ditzakeen akordioek geldiaraziko ote duten eskuina garrantzizko auziren batzuetan eta ezkerrekoen elkar ulertze aldera, errodaje gisa balioko ote duen horrek. Orain arte urrats txikiak, besterik ez da egin eta une honetan ez dirudi bide horretan serio-tasunez aurrera egiteko borondaterik dagoenik.

- Edozein kasutan, “hauteskunde – bake” garaian gaudela dirudi, eta horrek ahalbidetzen du eta behartzen gaitu PSOEn ezkerreko jende guztia, azken garaiotako gure ibilbidea birpentsa deza-gun. Ibilbide honetan lau elementu nagusi ditugu:

- M-15aren ondotik sortu den eremu hauteskunde-politiko zabala, batez ere esparru urbano eta gaztean.

- Azken hauteskundeetan, udal eta erkidego autonomoetan lorturiko hauteskunde emaitza bikainak eta horiek ekarri duten ezkerreko politikak benetako lanean praktikan jartzeko esperientzia.

- Antolatze prozesuak abian jartzean izaten ari garen mugek eta kontraesanek, eztabaidetan ageri diren egungo aukera politikoek, botere borrokak taldeen artean eta horietako bakoitzaren barnean.. espazio aldakor bihurtzen dute eremu hori oraindik, erabakitzeke baitauzka artikulatzeko moduak eta norabide politikoa.

- Gizarte ekintzaren ahultzea, neurri batean alternatiba politikoen eta horien inguruan sortutako zarraren eraginak sortua, nahiz eta krisiaren eraginak oraindik ere suntsitzaileak izan populazioaren zati handi batentzat.

- Nazioartean, Trump-en garaipenak eta eskuin muturra Europan izaten ari den hazkundeak ezkerreko indar guztiak behartzen ditu demokrazia eta askatasun printzipioen alde egin eta horiei eustera, elkartasunaren balorea desberdintasunen aurrean mantendu eta lorpen sozialak defendatu eta handitzera. Horren guztiaren baitan, egoera honi aurre egiteko gai diren gizarte indar eta indar politikoek bat egiten saiatu beharko dugu; horretarako, planteamendu berrituak eta erantzuteko energiak batzeko gogoia beharko dugu, zer ikasi eta zer esperimintatu ugari dugun bide horretan barna.

ALDAKETAREN GOBERNUA NAFARROAN

- Bi urte bete ditu Nafarroan halako gogoz espero izan genuen aldaketak. Zenbait hamarkadatan lehendabiziko aldiz eta justu-justuko emaitzarekin, lortu zen gobernu berria izateko moduko programa adostea, ordura arte trantsizio garaitik boterean txandaka egondako bi indarretako bata edo bestearen, UPN eta PSNren, beharrik gabe.

Orain arteko lanaren balorazioa oso positiboa da. Egindakoen artean hauek azpimarratuko genituzke:

- Gizarte murrizketen amaiera eta orain arte ezagutu ez den gizarte inbertsioaren handitzea Osasunean, Hezkuntzan eta Gizarte Eskubideetan, hauek Ongizate Estatuaren oinarritzko arloak baitira.

- Lege eta gizarte neurri garrantzitsuen onarpena, Bermaturiko Errentarena esaterako, LGS baino gutxiago kobratzen duten pentsionista guztiei horren osagarria hartara iritsi arte, etxebizitza legea, gizarte programa guztiendako %25eko baliabide handitzea, bi urtean bakarrik.

- Zerga erreforma progresiboa, sarrerak handitzea ahalbidetzen duena gizarte politika horiei eusteko.

- Adierazgarri positiboak ekonomian eta enpleguan, arazorik gabekoak ez direnak eta lehengoratzea kostako direnak, prekarietatea eta langileen pobrezia, besteak beste.

- Askatasunean eta eskubide berdintasunean aurrerapen garrantzitsuak Batzarretik bultzatu dituenak, memoria historikoaren legea, bestelako biktimena, Nafarroa osoan eredu publikoan euskaraz ikasteko aukera ematen duena etab.

- Balorazio positibo argi honek ez digu zenbait arlotan kritikoak izatea eragozten, eta orain arte burutu ez diren eta adostutako programak kontuan hartzen dituen erabakiak zorrotz betearaztea. Ezadostasun gehienak, zalantzarik gabe, hezkuntzan sortu dira eta neurri txikiagoan hizkuntz politikan. Lauko gobernuarekin bat egonda ere euskararen aurrerapenerako egin behar direnetan, behin baino gehiagotan, Ezkerraren parte hartze irmoa behar izan da gehiegizko ekimenez, gainerako giza eskubideekin talkarik ez egiteko. Gobernuaren aldeko jarrera dugunez, uste dugu, eta orain gehiago beharbada, euskararen aldeko apustuak arrakasta handiagoa izanen duela boluntarotasunaren eta Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren oinarriak bikaintasunez errespetatzen baditu.

- Oposizioari dagokionez, azpimarratu behar da aldaketa gauzatzen ari diren indarrekin, elkarriketarako eta adostasunerako duen prestutasun eza, ekonomian duen diskurtso katastrofista, errealitatetik oso urruna, eta identitate eta hizkuntza gatazkak puzteko ahalegin interesatua. Eta PPren gaitardik eta UPNren gaitardik espero bazen ere, harrigarria da PSNren nora eza. Haien norabide zehatzaren bila dabilzala esaten duten arren egunerokoan agerian uzten dutena hau da, eskuinetik hurbilago daudela laukotik baino. Ezkerrak beti ezkerreko indarren eta progresisten arteko elkarriketa bultzatu du eskuina boterera ez itzultzeko eta horrela jarraituko du. Etorkizun hurbilean edo ez hain hurbilean, hau horrela izango den ikusiko dugu.

- Datozen urteetan, Batzarrek eta Ezkerrak, programa akordioak betetzen eta sakontzen jarraitzea garrantzitsua iruditzen zaigu, baita aurrera egitea aldaketarako garrantzitsuak direnetan ere: aldaketa sozialean eta Nafarroaren aniztasunaren errespetuan. Giza aldaketa sakonagoak, anitzagoak eta herritarragoak.

DATOZEN GARAIETAKO ERRONKAK

- Batzar honetan aurkeztu dugu gure izaeraren oinarrien eta gure ibilbidean zehar eragindako proposamen politikoen laburpena. Hemendik aurrera honakoa izanen da gure lana:

- Gure sorreratik gure izaeraren oinarri izan ditugun ezaguera eta eskarmentu hauek sendotu eta kontrastatzea, izan ere, denboran zehar autokritikaren eta hausnarketaren bidez ondu eta bilakatu dira eta.

- Gure pentsamendu kritikoa era ausart eta gogoetatsuan berritzen jarraitzea, guri eta ezkerriari agertzen zaizkigun errealitate, arazo eta erronka berriei aurre egiteko.

- Sare sozialen eta hari motzeko komunikazioan, zoritxarrez, nabarmentzen ari da aldarrikapenetan, misil dialektikoetan eta arerioa umiliatzen oinarrituriko adierazteko modua. Badago halako muturreko berbalismo bat, barnekoen batasun apurtezinerako gehiago balio duena gizarteko gehienak konbentzitzeko baino. Horregatik, formazioari, balore batzuk eta pentsamendu kritikoa eratzeari, garrantzia ematen segitu behar dugu, errealitatearen ikuspegi ahalik eta hurbilena izan dezagun.

- Hauteskunde koalizioetan ibilbide luzea dugu egina eta egun, Ezkierda-Ezkerrako kide gara. Bat egite prozesuak esperimintatu baditugu ere, eta emaitza ezberdinak izan, oraindik bide luzea dugu eremu honetan egin beharra eta forma eta intentsitate ezberdinak izanen ditu tokiko itunez ari bagara, Nafarroako Parlamentuko edo Diputatuen Kongresuko. Batzarre agertoki honetako parte da eta lanean ariko da, beti egin izan duen bezala, ezker ezberdinen elkar ulertzearen alde, beti ere elkarren onarpenetik eta elkarrekiko begirunetik abiatuta. 2019ko Foru eta Udal Hauteskundearen or-tzi muga erronka galanta izanen da Batzarrentzat eta oraintxe hasita, lanari ekin behar diogu elkar uler dezakegun jendearen eta taldeon artean zubiak ezartzeko. Beti hala esan izan dugu eta halaxe sinesten dugu. Ezkerraren eta progresismo ez abertzalearen eremu soziala da handiena hauteskunde orokorretan Nafarroan, eta foru hauteskundeetan ere horrela izan daiteke. Ahalik eta batasun handiena izatea eremu horretan da aldaketa zuzentzeko gakoa.

- Batzarrek udalen arloan du sorlekua, 1987an sortu zen Nafarroan, tokiko ezkerreko hauteskunde zerrenda independente zenbaiten baturatik eta horixe izan dugu ardatz ibilbide guztian. Egungo legegaldian, Nafarroako eta Espainiako udal gobernu askotan izandako funtsezko aldaketa dela eta, indartu egin da udalen papera botere-gune gisa, zenbait aldaketa ezkerretik egitea ahalbidetzen baitu. Egoera honetan lehen mailako bi lan ditugu:

- Egun ditugun zinegotziek prestatu, formatu, koordinatu eta antolatu beharra dute.

- Orain bertan hasita, plan zehatza egin behar dugu, egun dugun udal errealitatea sendotzeko eta hurrengo hauteskundeetan gure presentzia beste herri batzuetara zabaltzeko.

- Esku hartze sozialari balioa eman behar zaio, berriz ere. Beti ulertu dugu Batzarre bi eremutan aritzen den taldea dela: erakundeetan eta esku-hartze sozialean. Egia da mobilizazio handiek, marreek.. azken urteetan atzera egin dutela, agian, hasieran aldaketarako sorturiko itxaropen politikoak zirela eta, baina badakigu gizarte-lana ez daitekeela egon manifestazio handien gora-beheren menpe. Gu gizarte ekintzailetzan zailduak gaude, arazo guztien aurka izan dugun ibilbide luzeari esker eta hor ari gara azken garaian sortu diren ekimen berrietan ere, baina tentsioari eutsi egin behar diogu eta kaleko lana indartu, gure herri eta auzoetan sortzen diren bidezko aldarrikapenak dakartzkigutenean ondoan.

- Estatutuak onartu ditugu eta hemendik aurrera, antolakuntza egitura gardena, demokratikoa eta parte-hartzailea izanen dugu paperetan, baina hori ez da aski. Eskarmentuak erakutsi digu kontua ez dela zuzendaritzaren ardura talde baten esku jarri eta beren zereginetan bakarrik uztea; hori gertatuko balitz ez bailuke ezertarako balioko egin dugun antolakuntza ahaleginak. Batzarren barne-

bizia indartu behar dugu, jendearen parte-hartzea eguneroko beharra da taldearen kudeaketan eta zuzendaritzan. Gu guztion arteko ideia, proposamen eta kritika eraikitzaileen transmisio arina egin behar dugu, goitik behera eta alderantziz ere bai. Beste gauza batzuen artean, moldatu beharra dugu taldean dugun alde digitala. Zuzendaritzak tresnak eskaini beharko dizkigu eta guztiok saiatu beharko dugu hori hobetzen.

- Espainiako funtzio publikoaren hondamenaren arduradun nagusia bada ere, ez da ustelkeria gogor egin beharreko arazo bakarra. Herritarrek argi eta garbi sumatu behar dute haien ordezkariak ez dutela inolako pribilegio eta prebendarik -handi edo txiki- euren eguneroko zereginean, izan ere, hori gabe bizitza politikoa eraberritza ez baitago. Gure historia luzean zehar, gure ordezkariak goian eutsi diote eskuzabaltasunaren, emankortasunaren eta zintzotasunaren listoiari. Aitzindari izan ginen, Nafarroan zehar lasai ederrean zebilen ustelkeria eta mota guztietako amarruak salatzen, bai gobernuko alderdietan, bai oposizioko gehienetan, hiritarrek artean fisik ere esaten ez zuten garaian. Gaur egun, herritarren betekada mailarik gorenera iritsi den honetan, Batzarreko jendeak pulsuari tinko eutsi behar diogu eta gatazka honetan lehen lerroetako tokiak hartu politikan modu eredugarrian "aritzen" badakigula erakusteko, oraindik ibilbidea luzea izanen baita.

- Politikarien lotsagarrikeriari aurre egiteko ahaleginetan beti gure balioak izan arren, orain Kode Etiko estu eta zehatz baten jabe egin gara, gure historia luzean barna izandako eskarmentuan oinarritutakoa. Hemendik aurrera badugu testu bat hara jotzeko eta horrekin kontsekuente izan beharko dugu. Batzarreko zuzendaritza taldeko kideek, eta baita militanteek ere, erne egon beharko dugu geure buruarekin zein besteekin, xedatu ditugun jokabide horiek bete ditzagun denok eta ez gaitzke lasaitu guretzat hil ala bizikoa den auzi honetan: Jarduera politikoan ari gara jendeari laguntzeko eta ez hark lagun gaitzan geure probetxuan.

- Batzarre ezkerreko indar politiko aske, ireki eta independentea da eta bere tokia izan nahi du Nafarroan ezkerre eraikitze prozesuan, are gehiago, horretan ari da jaio zenetik. Ideien munduan, giza baliabideenean eta eskarmentu luzean dugun ondarea oinarri sendo eta erakargarria da bideak irekitzeko. Orain bizi dugun une politiko asaldatu eta ireki hau aukerez beteriko errealitatea da, eta guk apustu tinkoa egin behar dugu, eszenatoki honetan Batzarrek dagokion papera joka dezan eta sendotu eta haz dadin, horretarako egoki deritzogun garai honetan. Taldeko kide guztiei eta gure inguruari dei berezia egin nahi diegu gure ideia hauek zabaltzen eta jende berria gure proiektura hurbiltzen, bakoitzak bere ahalmenaren baitan, lan egin dezagun. Horrela, Batzarre funtsezko eta beharrezko elementua izango da ezkerrearen eraikuntzan, Nafarroa bizileku ederra izan dadin eta bertan justizia, askatasuna, aniztasunari errespetua, demokrazia parte-hartzailea eta elkartasuna nagusi izatea lortuko dituen ezker horrenean, alegia. Horretara bideratuko ditugu ahalegin guztiak.